

Parte-hartzeari eta Kontuak Emateari buruzko aipamen guztiak Ekintza Humanitarioaren xede diren biztanleriei buruzkoak dira			
Parametroak	Osagaiak	#	Elementuak (horietatik abiatuta, galdesortak garatzen dira)
1. Kontzeptuzkoak	1.1 Parte-hartzearen kontzeptua	1	Biztanleriek Ekintza Humanitarioan parte hartzearen definizioa
		2	Parte-hartzea justifikatu eta sustatzeko azken arrazoiak (etikoak / utilitaristak). Parte-hartzearen Zuzenbide-oinarriak (eskubideen ikuspegia edo lan-metodologia)
		3	Parte-hartzea sustatzeko faseak edo eremuak
		4	Parte hartzean hainbat talde aintzat hartzea: generoa, adina, gutxiengo etnikoak, talde estigmatizatuak, etab.
	1.2 Kontuak Ematearen kontzeptua	5	Ekintza Humanitarioan biztanleriei kontuak Ematearen definizioa
		6	Kontuak Ematea eta Xexa eta Erreklamazioekiko eta Feedbackarekiko lotura.
		7	Kontuak Ematea justifikatu eta sustatzeko azken arrazoiak (etikoak / utilitaristak); Zuzenbideko oinarriak.
		8	Kontuak Ematea sustatzeko faseak edo eremuak
		9	Kontuak ematearen inplikazioak / ondorioak
	1.3 Parte-hartzearen eta Kontuak ematearen arteko lotura	10	Parte-hartzearen eta Kontuak Ematearen arteko lotura-elementuek benetako berrelikadura-zirkulu bat osatzen al dute?
		11	Biztanleriek kontuak ematearen kudeaketan parte hartzea: feedback erakundeari, kexen kudeaketa, etab.
2. Kulturalak (biztanlerienak, ingurune-testuinguruenak eta erakundeak)	2.1 PKEari eragiten dioten kultura-faktoreak.	12	PKE efektiboan eragina duten kultura-faktore posibleak kontuan hartzen dira? Zein dira kultura-faktore horiek? (patriarkalak, generokoak, etnia, hierarkikoak, dinamika gatazkatsua, ahozko kultura versus idatzizkoa, etab.).
		13	Praktikan, nola hartzen dira kontuan biztanlerien kultura-faktore horiek?
	2.2 PKEari eragiten dioten ingurune- eta testuinguru-faktoreak.	14	Ba al da PKEan eragina duen ingurune-faktorerik?, gatazka politikoak, historikoak...? Eta, kontuan hartzen al dira?
		15	Ba al da testuinguru Humanitarioan PKEan eragina duen faktorerik? (adibidez: biztanlerien mugikortasun handia (migrazioak), Erakunde Humanitarioen txandakatze handia, etab.). Nola hartzen da kontuan?
		16	COVID-19ak PKEan dauzkan inplikazioak, egungoak eta aurreikus daitezkeenak. Hartu beharreko neurriak
	2.3 Erakunde Humanitarioen kultura-faktoreak	17	PKEan eragin positiboa edo negatiboa duten Erakunde Humanitarioen balio eta jarrerak.
18		Nola maneiatzen dira antolamendu-balio eta antolamendu-jarrera horiek PKEaren alde?	
3. Kudeaketakoak (jakintza, instrumentalak, ospea eta finantzaketa barne)	3.1 Politika eta estrategiak	19	PKE jasota al dago Erakunde Humanitarioen printzipio, politika eta estrategietan? Non eta nola?
		20	PKEko antolamendu-irizpideak zenbateraino zabaldu diren erakundeetako langileen artean
	3.2 PKErako antolamendu-tresnak eta erremintak	21	Zer tresna dauzka erakundeak PKE efektiboa ziurtatzeko?
		22	Zer antolamendu-mailatan kudeatzen da PKE (eragiketa-mailan, gerentzian, Zuzendaritzan)?
	3.3 Erakunde-inplikazioak	23	Zein dira PKEak Erakunde Humanitarioan dauzkan inplikazioak? Ospea, finantzak, orientazio estrategikoa?
		24	PKEko erantzukizunak banatzea Emaileen, Nazioarteko Erakunde Humanitarioen, Erakunde Nazional-Lokal Humanitarioen, Toki-koordinazioko taldeen eta Ekintza Humanitarioaren xede diren biztanlerien artean.